



BARREN

TRIKIOM



Ametsa bete du



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

15. EDIZIOA IMH SARIAK

Ekainak 15 | 17:30etan | Heziketa Zikloen Diploma eta Sari banaketa Ekitaldia

Sariak: IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA / IKASLEEN ERRONKA AIPAGARRIAK

Enpresa
Babesleak



Enpresa kolaboratzaileak:

AGME - ALCORTA FORGING GROUP - BERKOA - BRONYMEC - DPH - ECENARRO - ENGRANAJES GRINDEL
ETXE-TAR - FAGOR AUTOMATION - TORNOS GURUTZPE - HAIZELUR - HARMONIC DRIVE - IBARMIA
ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES - JUARISTI - KENCI KENNAMETAL - LAIP - MANUFACTURAS HEPYC
MAZA - PAMPO - ONA ELECTROEROSIÓN-RICOH-SAMSIC IBERIA-SOLUCIONES INDUSTRIALES TECNOMECA

HEZIKETA
ZIKLOAK
Aurrematrikula:
Ekainak 5-16



INGENIARITZA
GRADU DUALAREN
Azken informazio saioa:
Ekainak 14, 17:00etan



www.imh.eus - imh@imh.eus - Tel.943744132 - Elgoibar

erromeria gidatua ERREBAL taldearekin

ekainak 9, ostirala
20:30
Maalako parkean



Jokin Otamendi dantza-maisuarekin
Euskal Herriko eta Europako dantzak ikasi eta dantzatuko ditugu

Ez da ikastaro bat, festarako erromeria baizik.
Helburu bakarra: dantzan ondo pasatzea!

Antolatzaileak:



Babeslea:





IBON SERRANO LASA



“Txundigarria egin zait Kosmosaren dimentsioaz jabetzea”

Ar-Khadi Mouffi ohoragarria, natura eta gizartearengan itxaropena galdurik, hondamendirantz goazen garaio-tan, eguneroko txikikeri eta miseriak perspektiban jarri nahian, inguratzen gaituen unibertso izartsuan jarri dut arreta azkenaldian. Hala, txundigarria egin zait Kosmosaren dimentsioaz jabetzea. Jar dezagun adibidekotz denboraren eskala:

Unibertsoak 13.000 milioi urte omen dauzka; Lurrak 4.500 milioi; bizidunek 3.800 milioi; ornodunek 500 milioi; homininoek 7 milioi; gizaki modernoak 200.000 urte; lehen nekazariak 11.000. Txiki Egunak, egun bat.

Gatozen tamainetara:

- Unibertso ikusgarrian 100.000 milioi galaxia kalkula daitezke...baina kontuz! azken teorioren arabera, milioika unibertso leudeke! Multibertsoa alegia (*rien à voir* bertsolaritaz, *s'il vous plait*).

- Edozein galaxiatan, berriz, batez besteko 100.000 milioi izar! Gure galaxiari Esne-Bidea deritzo, milaka milioikako izar horietako bat da hain zuzen ere eguzki amandrea.

- Gure eguzkitik hurrengo izar hurbilena, *Proxima Centauri*, 4,22 urtetara. Noski, argiaren abiadurara bidaiatuz gero: 300.000 km segundoko.

Probabilitateak urriak izanik ere, nola ez da ba egongo hor nonbait bizitza estralurtarrik? (noski, Elgoibarren aurki daitekeenaz kanpo, diot).

Baina utzi bekit berorrek azken ariketa egiten, oraingo honetan txikirantz (eta ez “txikikeriarantz”).

- Giza gorputzak 37.200.000 milioi zelula lituzke.

- Zelula gehienek 46 kromosoma.

- Kromosoma bakoitzak kode genetikodun DNA kate bi-helikoidal bat.

- DNA bakoitza desarikaldu eta 3 m.ko hari bat genuke. Jarrai beza berorrek DNA distantzi kalkuluz.

Jainkoarren! Handitasun eta ugaritasun guzti honek *erreflexionne* batetara narama:

Gizakia horren kasualitatekoa izanik, horren bizi-bulkadaren mirari, horren konplexu eta berezi, horrenbeste lan ebolutiboren emaitza eta ondorio...eta aldiz...egunetik egunera, zenbat ergel, lermo eta kirten jasan behar!

...Ez al zaio ba faltako guzti honi azken ukitua?

Ar-Khadi, zer dio berorrek Elbrutz mendiko Alamut gotorlekutik? sakonegia al da nire “*Weltschmerz*” sentipena?



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

“Zure testuak irakurtzen saiatzen garenon mailla intelektuala hazten dua oharkabian”

Ibon-Tse, aurrekuan Angel Ugarteburuk esan zidan jakinduria unibertso bat zerala, eta oraindik ez ziñan multi-bertsuari buruz idazten hasi. Hurrenguan zer esango ete ditt bertso eskolan irakasle izan nabanak?

Baiña zer gertatu jatzu, lagun, berriz ere *Weltschmerz*-en putzu sakon eta illun horretan jausteko? *Mindfulness*-arekin hórrek kontuok iraganian laga zenitula pentsatu nanan. Arreta osua, oraiña, *Carpe Diem*, momentua disfrutatzeke esaten zidazun. Lao-Tse irakasle zaharraren jakinduria monje budista baten gorputzian (orrazkeran behinik behin) ikusten naban zugar. Baiña ozpinduta nabari zaitut gaurkuan. Elbrutz mendiko gotorlekutik zerbaitegin biharrin nago, energia guzti hori berbideratzeko, *Übermensch* superpersonenganako esperantza itzuli dakizun.

Hasteko, arrazoia eman behar dizut gure herriko gauza transzendentalek egiten dogun kudeaketaren inguruan. Gure

Esku Dagok antolatutako herri galdeketa, hirugarren galdera bat falta zan nere iritziz, Txiki Egunarena. Nago, hori izango zala parte-hartzia arrakastaz ittoko zaban galdera garrantzitsuena gehixentzat.

Halere, harro esango dizut baikor egoteko arrazoiak ere badauzkagula, Ibon-Tse. Trending topic bihurtzen dira Zozoak Belea atalera ekartzen didazun gaixak: Alberdaniaz horditurik, Antso Kixote abesten hasi giñeneko idatzi hark inflexio puntu bat jarri zaban elgoibartarron begixetan. Zuri eskerrak, ordutik, Txiki Eguna ez da lehengua, gitxienez gure irakurle fin guztixentzat (senide eta lankide fidel apurrak, agur bat). Horregaitik, zu testuak irakurtzen saiatzen garenon mailla intelektuala hazten dua oharkabian. Gaurkuan hiztegi gabe zure testua ulertzeko gai izan naiz. Nola deittuko ziñon honi, *Aufklärung*? *Edo haratago, Erleuchtung*?

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



Finantza hezkuntzaren beharra

banka zerbitzuen erabile-rari buruzko galderak egin zitzaizkien besteak beste, beraz, etxeko ekonomia kudeaketan etorkizunean nahi eta nahi ez aurre egin beharko dituzten egoerei buruzkoak. Harrigarriena da gai hauei buruzko emaitzek matematika eta irakurmenean lortutakoekin lotura estua izan arren, atal hauetan baino emaitza okerragoak atera dituztela, nabarmen gainera. Argi dago, beraz, gure Hezkuntza sisteman finantzak ez direla

“Interesgarria litzateke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako geletan finantza hezkuntzari merezi duen lekua ematea”

Joa zen asteen telebista eta egunkarietan PISA ebaluazioaren atal baten emaitzen berri izan dugu, finantza arloko ezagutzari buruzkoa hain zuzen. Honek agerian utzi ditu estatuko Hezkuntza sistemak, hegoaldeko Euskal Herrikoak barne, finantzatan duen gabezia; lortutako emaitzak nahiko kaxkarrak izan direlako, OCDEko herrialdeen batez besteko ezagutzaren azpitik.

2015ean 15 urteko hainbat ikasleri faktura, nomina, kreditu txartel edo

behar bezala lantzen.

Azken urteetan ildo honetan sakontzeko helburuarekin proiektu batzuk sortu dira, Katalunian adibidez. Han banketxeetan lan egiten duten boluntarioek ikastaroak eta tailerrak eskaintzen dituzte bigarren hezkuntzako zenbait ikastetxetan, aurreztearen garrantziaren inguruan aholkatzen, nominaren atalak bereizten laguntzen edo mailegu, kreditu eta zenbait finantza produkturi buruzko xehetasunak ematen. Interesgarria izango litzateke proiektu hauetaz gain Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako geletan finantza hezkuntzari merezi duen lekua ematea, ez bakarrik PISA azterketan zenbaki gorrietan ez agertzeko, baizik eta etorkizuneko gazteak eguneroko bizitzan agertuko zaizkien etxeko ekonomiari buruzko erabakiak autonomia osoz eta irizpide propioekin hartzeko gai izan daitezten.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Lehenen Inprimategia

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENe bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENe ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MORKAIKOREN EGUNA

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean eskerrik asko Morkaikoren Egunean lagundu diguzuen guztioi: Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Benantzio, ibilbide inguruko baserriar guztiak, Imanol Larrañaga Txino, Jose Ignacio Jauregi, Jose Ignacio Laskurain eta Inaxio Garmendia (itzulitxoko gidariak), Atxutxiamaikako begiraleak, Josu Merino eta eskalada taldekoak, Usua taberna, Beristain edariak, Azaolako sagardoa, Insalus, Sahatzu, Muruamendiaraz gozotegia, Eroski, Eizagirre okindegia, Kutxabank eta Gaztetxeko kideak.

Gure lantaldeaz gain zuen laguntza ezinbestekoa izan zen; Jaime Martinez, Jabi Guallar, Asier Lizarralde, Aritz Larrañaga, Mikel Zubiaurre, Jugatx Juaristi, José Luis Diez Txelu, M^o Jose Estibaritz, Mariaje Intxausti, Jokin Zubiaurre, Ion Arrese, Martin Galarza, Pilar Arrese eta Mikel Gabilondo.

Bukaeran mahaiak jasotzen lagundu zuten guztie!!

Barkamena eskatu oparirik gabe gelditu ziren haurrei. Gehiago eskatu ditugu, eta ekainean helduko zaizkigu. Mesedez, idatzi morkaiko@morkaiko.eus era honen gainean galdetzeko.

Hurrengo urterako lanian jarraituko dogu eta hobetu ahal diranak kontuan izango diitugu! Hurrengo urtera arte!

Morkaiko Mendizale Elkartea

► KATU EDER

Batzuek jakingo duzue, Katu Eder elkarte sortu da Elgoibarren, kaleko katuak laguntzeko asmoz. Elkarteko kideak lan handia egiten ari dira katu horiek zaintzeko, eta gaixorik daudenei tratamendua emateko. Katuak harrapatzen eta antzutzen ere badabilta, gehiago ugaldtu ez daitezten. Bakar batzuk kaletik ateratzea lortu dute, haiek adoptatzeko

prest dauden pertsonei esker. Duela gutxi, adibidez, lepokoa zeraman katu beltz bat aurkitu dute. Ziur asko abandonatu egin zuen jabeak, eta norbaitek adoptatzeko zain dago.

Lan horrek gastu batzuk dakartza (al baitaria, janaria...), eta elkartekoek euren gain hartzen dituzte denak. Horrelako elkarteak oso hedatuta daude herrialde askotan, eta hemen ere, badirudi handituz doala animalien ongizatearekiko konpromi-

s o a .
Beraz, eskerrik asko izango litzateke Elgoibarko herritarrek eta Udala bera gai honetan inplikatzeko. Bide batez, animaliarik ez erosteko eskatu nahi dizuet. Animaliak babesteko elkarteetan aurkituko dituzue nahi bezain beste, ia ezere truke, eta zoriontsu izateko aukera emango diozue katu edo txakur horri.

A.O.

► ESKERRIK ASKO

Kalamua Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue pasa den larunbatean txosnara lanera etorri zineten gurasoei eta zerbait hartzera gerturatu zineten herritar guztioi

Hortaz gain, jakinarazten dizuegu zozketatu genuen gaztaren zenbaki saritua 1065 izan zela. Ordezkoa: 1449. Sarituak ager daitezela mesedez txartelarekin Txillarrendara (San Bartolome kalean), gaztaren bila.

Kalamua Guraso Elkartea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhar:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.

5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingariak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

KARMEN LARRAÑAGA

BARREN oso gustura jasotzen dugulako Mendaron eta euskara lantzeko aukera ematen digulako. Eta BARREN Elgoibarko Izarrarena denez, bazkide naiz elkarteari lagundu eta proiektuari eusteko.



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izateak?

Herritarren proposamenak bildu ditu Aldundiak 2018ko aurrekontuak egiteko



Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu irekien ekimena Elgoibar eta Mendarora ere iritsi da, herritarren ekarpenak eta proposamenak jasotzeko. Imanol Lasa Gobernanza eta Gizartearekiko Komunikaziorako diputatuak eman zituen azalpenak, eta esan zuen garrantzitsua irizten ziotela Gipuzkoako Foru Aldundia herritarrengana gerturatzeari, elkarrekiko konfiantza handitzeko, eta garrantzitsua irizten ziotela, era berean, herritarrek halako ekimenetan parte hartzeari. Azaldu duenez, orain arte 1.700 proposamen baino gehiago jaso dituzte, iaz baino "dezente gehiago". Elgoibarraren jarri zuten karpura Ane Beitia alkatea eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotzia ere gerturatu ziren.

Herritarrek ekainaren 30era arte dute ekarpenak egiteko aukera, etxez etxe banatu dituzten esku orriak bete eta udaletxeko erregistroan aurkeztuta edota Internetez, gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean sartuta. Gipuzkoaren etorkizuneko erronka nagusia zein den zehaztu beharko dute herritarrek, eta Aldundiak zein arlotan inbertitzea nahiko luketen adierazi. Proposamen guztiak memoria batean jasoko dituzte teknikariek, eta han zehaztuko dute zeintzuk onartu dituzten. 16 urtez gorakoek hartu dezakete parte.

Dibortzioari buruzko hausnarketa saioa

Ongizate Sailak, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartearekin, Ikastolako Guraso Kontseiluarekin eta Arreiturrekoak Guraso Elkartearekin lankidetzan, *Dibortzio osasungarria* izeneko hitzaldia antolatuta du, dibortzioaren inguruan hausnartzeko. HH, LH eta DBH-ko haurren gurasoentzako saioa da. Ekainaren 8an egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldigelan, 18:00etatik 20:00etara. Parte hartu nahi dutenek ekainaren 5erako eman beharko dute izena, elgoibargurasoformakuntza@gmail.com helbidera idatzita.

Itsas azpiko bulkanismoa ezagutzeko aukera

Domekarako ibilaldi geologikoa antolatuta dute, itsas azpiko bulkanismoa ezagutzeko. Maltzagako bidegorrian zehar egingo dute ibilaldia, eta besteak beste, pasealekuan ageri diren harri bolkanikoei buruzko azalpenak emango ditu Inma Mugertza geologoak. 10:00etan batuko dira udaletxe azpian, eta hiru bat ordu iraungo ditu ibilaldiak. Interesatuak 8 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko: infohydrolur@gmail.com helbidera idatzi.

Aita Agirre eraikineko obrak IZA enpresari esleitu dizkio Elgoibarko Udalak, 2,39 milioi euroan

Hamasei enpresa aurkeztu dira Aita Agirre eraikineko obrak egiteko esleipen prozesura eta IZA Obras y Promociones SA enpresari eman dizkio obrak Elgoibarko Udalak, 2,39 milioi euroan. Obrak uztailean hastea aurreikusten dute, eta hamalau hilabeteko iraupena izango dute. IZA Obras y Promociones S.A. enpresa bizkaitarrak 40 puntutik 34,4 lortu ditu. Balorazio irizpideei dagokienez, obren zein Elgoibarri buruz duten ezagutza hartu dute aintzat, beste batzuen artean eta baita obrek dirauten bitartean sor daitezkeen arazoentzat proposatutako konponbideak ere. Balorazio puntu guztiak kontuan hartuta, IZA enpresak aurkeztutako proposamena "orekatuena" izan dela azaldu du Udalak.

Proposamen ekonomikoari dagokionez, hasieran proiektua gauzatzeko aurrekontua 3.519.489,69 euroan (BEZ gabe) ezarri zuten arren, esleitutako enpresak 2.393.252 euroko eskaintza aurkeztu du, "ekonomikoki errentagarriena" izanik. www.aitaagirre.net atarian daude Aita Agirreraren inguruko jakingarri guztiak.

Eskolako Agenda 21eko udalbatza berezia egin dute Mendaron



Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan, ikasturtean zehar landutako hainbat gai azaldu zituzten martitzenean Mendaroko ikasleek Udaleko agintarien aurrean. Elgoibarko ikasleen txanda izan zen maiatzaren 18an, eta aste ho-

netan, Mendaroko ikasleak izan dira udal ordezkariekin batu direnak, Mendaroko herriari buruzko proposamenak egiteko. Izan ere, 2016-17 ikasturtean Biodibertsitatea eta Geoaniztasuna landu dute Debabarreneko ikasleek

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan, Debegesa garapen agentziaren koordinaziopean. Horren harira, Mendaroko ikasleek herria hobetzeko proposamenak eta beraiek hartutako konpromisoen berri eman zioten Sonia Garcia Mendaroko alkateari.

Egin zaitez bazkide!
Elgoibarko Izarra
943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



3.050 kilo janari batu ditu Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak janari bilketa egin zuen joan zen astean BM supermerkatuan, eta gutxi gorabehera 3.050 kilo elikagai jaso ditu. Gizarteratze Mahaiak eskerrak eman dizkie elikagaien bilketa horretan parte hartu zuten herritarrei, bai janaria batzen aritu ziren 33 boluntarioei eta baita janari ekarpena egin zuten herritarrei ere. Boluntarioen artean hiru adingabe ere baziren, eta arduradunek esan dute baloreen lanketa berezia egin dutela hiru horiekin. Elgoibarren bildu diren elikagai guztiak Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen biltegira bidali dira. Handik, Gurutze Gorria-Elgoibar bezalako erakundeen bitartez, elikagaiak herri bakoitzeko familiei helaraziko zaizkie.

Ekainaren 10ean zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Ekainaren 10ean hasiko da bainu denboraldia Mintxetako igerilekuetan, eta irailaren 10era arte egongo dira zabalik. Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du asteleheneetik barixakura 11:00etatik 20:30era egongo direla zabalik; eta, asteburuetan, 10:00etatik 20:30era. Abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko dituzte. Abuztuaren 25ean (Txiki Eguna), itxita egongo dira. Bestalde, abuztuan, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan mantenu eta garbiketa lanak egin behar dituztela-eta, hila-bete osoz itxiko dituzte. Kirol Patronatuko bazkideek Eibarko Orbea kiroldegiko igerilekua erabiltzeko aukera izango dute aurten ere.



▶ MAITE MAIORA IÑIGO LARIZ

KORRIKALARIAK

Lagunak dira beste ezerean gainerik, eta ageri-agerian gelditu zen beste behin, igandean, Zegama-Aizkorri maratonia bukatu berritan. Ametsa egi bihurtu zuen Maite Maiorak (Mendaro, 1980). Bera izan zen azkarrena eta jantzi zioten txapela, baina asko izan ziren haren garaipenaz poztu zirenak. Handia egin zuen eta hunkituta ageri ziren senide eta gertukoak, tartean Iñigo Lariz bera (Elgoibar, 1983), as-tebete aurretik kilometro bertikalen Espainiako Txapelketan podiu-mean lagun izan zuenak. Gaur, mahai berean batu ditugu biak.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Nolakoak dira Zegama-Aizkorri mendi maratonia irabazi osteko egunak?

Maite: Oso egun politak izaten ari dira, baina oso-oso nekatuta nago. Zorarena da. Ahaztu nahi dut igandekoa, atsedean hartzea komeni zaidalako, baina aldi berean, hain izan zen ederra ez dudala ahaztu nahi. Hainbeste dira oroitzapenak eta hain dira sakonak...

♦ Txirringularitza balitz, Zegama-Aizkorri Frantziako Tourra litzatekeela entzun izan dizugu. Aurtengoa, oso izan dela berezia nabarmendu dute korrikalari askok. Zerk egin du aurtengoa horren berezi?

Maite: Eguraldiak, gauzak diren moduan. Iaz hain egin zuen hotz handia eta hainbeste jende erretiratu zen, oroitzapen hori hor geneukala guztiok. Baina garbi daukat afizioak egiten duela Zegama-Aizkorriko maratonia hain berezia izatea. Urtetik urtera jendeak afan handiagoa dauka eta denok nahi dugu Zegama-Aizkorriko parte izan. Andraitzen, jende artean egin genuen gora, pasillo estuan gora, eta Aizkorriko gailurreria osoa jendez gainezka zegoen. Sancti Spiritun gora ere, jendeak eramaten gintuen, bide estu-estuan gora.

♦ Sare sozialetan ikusi zaitugu helmugan Ainhoa Txurruka Zegama-Aizkorriko zuzendariarekin besarkada estuan batuta. Harremana ere berezia da?

Maite: Lasterketa hau beti izan da berezia, baita Ainhoa, Aierdi familia eta beste jende asko lagun egin aurretik ere, baina egia da azkeneko urteetan oso harreman estua egin dugula, eta zer esanik ez, duela bi urtetik. Orduan, hankako hezur bat apurtuta neukan eta ez nengoen Zegaman irteko moduan, baina aurreko urtean (2014an) helmugan Iñigorekin [Lariz] batera sartu nintzeneko hura neukan buruan, eta irten nahi nuen, kosta ahala kosta. Eta hori dena jakinda ere, Ainhoa bera ibili zen ezin nuela parte hartu ulertarazten eta ingurukoei ez lagatzeko esaten, bazekielako ez zela ona izango niretzat. Oso lagun onak egin gara, eta banekien nik irabaztea berezia zela eurentzat ere. Ez dugu honen inguruan hitz egin, ziurrenik biok kontziente ginelako oso zaila



“Irabazteak bakarrik balio zidan oraingoan”

- Maite Maiora -

zela Zegaman irabaztea, baina nik ardura hori banuen, sentitzen nuelako nahi zutela nik irabaztea eta oso zaila dela Zegaman irabaztea; ia ezinezkoa.

♦ Espainiako txapelketan askotan izan zara, iaz munduko txapelketa irabazi zenuen... Zegama-Aizkorri irabaztea zer da, gehiago?

Maite: Ni iaz Espainiako txapelketakoan helmugan sartzeraz nindoala neure barruan pentsatu nuen: ‘hau bai, baina nik Zegaman irabazi nahi dut’.

♦ Zuen aitak helmugan aitortu zigun bazekielako sasoirik onean zeundela eta irabazteko gai zinela, baina beldur zela Zegama-Aizkorri irabaztearekin itsututa ikusten zintuelako. Obsesioa, ametsa...

Maite: Obsesionatuta nengoen bai. Obsesioa eta ametsaren arteko zerbait izan da. Eta lan psikologiko handia egin behar izan

dut, amets horretan gehiegi ez pentsatzeko, ametsak behin ere ez direlako betetzen, amets zailak behintzat. Baina badakizu zer den txarrena? Ez nuela landu ez irabazteko aukera, jakin arren oso zaila zela irabaztea. Garbi daukat irabazi ez banu ez zela porrota izango, baina garbi daukat 4:40ko denborarekin bigarren egin banu ez nintzela gustura geldituko, porrota izan ez arren. Irabazteak bakarrik balio zidan oraingoan.

♦ **Zure bueltan badago talde bat, hein handi batean zure senar losu Juaristik sortua, eta hor tartean dago Iñigo ere. Ikustekoa zen jende talde horren poza igandean.**

Maite: Bai, eta pozik nago irabazi egin dudalako, baina baita ingurukoak, lagunak, poztu direlako nik irabazita. Segundoak, minutuak, irabazi ditut haiei esker, baina hori baino gehiago da jende hori guztia gertu sentitzeak psikologikoki ematen didan indarra. Nik larunbatean esan nien losuri eta Marc Codina fisioterapeutari ere banekiela biharamunean ez nuela hutsik egingo baina ez nekiena zela besteek zer egingo zuten. Ez zegoen dena nire esku, baina garbi neukan nik ez nuela hutsik egingo. Egunean bertan Urbian izan nuen krisi une bat. Lagun bat ikusi nuen eta hark esan zidan: 'Maite, gaur ez da ibiltzeko eguna; gaur korrika egiteko eguna da, sufritzeko eguna'.

♦ **Noiz konturatu zinen garaipena zurea zela?**

Maite: 41. kilometroan.

Iñigo: Ni, lehenago. Oltzen nire aurretik pasatu zenean jabetu nintzen berak irabaziko zuela (26.km). Aratz jaisten ikusi nuen, eta gero, Oltzen berriro, Aizkorriko gailurreria dena pasatuta. Guk taldean bagenuen ordutegi bat zehaztuta eta ikusi nuenean zortzi minutu aurretik zetorrela eta gainera barrez, eta Silvia Rampazzo denbora galtzen ari zela eta Megan Kimmel ikusi ere ez zela egiten...

Banekien ez zuela hutsik egingo, ez zuela behera egingo, Maitek lasterketa guztietan behetik gora egiten duelako. Eta taldeko whatsappera ere idatzi nuen: *Posible record*.

Maite: Bi kilometro falta arte ez nintzen kontziente izan errekorra ondu nezakeela. Zurekin egon nintzen lehenengo anoa postuan ere esan nizun ea ez ote nindoan azkarregi. Sentsazio hori banuen. Hasi eta berehala jarri nintzen aurrean, gauza normala ez dena, baina Otzaurten gora aurreratu ninduten hiruk eta ikusi nituen euren artean pikatuta. Nik garbi neukan, baina, nire lasterketa egin behar nuela. Gainera, Otzaurteko jaitsieretan konturatu nintzen jaisten ez zirela batere abilak eta hor banuela abantaila bat. Eta jolas psikologikoari ekin nion. Jarri nintzen aurrean, han nengoela ikus zezaten; banekien aurrera eginda ere ez zirela horrenbeste urrunduko.

♦ **Hunkituta ikusi zintugun helmugan, Iñigo. Zu, losu, eta baita Lizarpeko beste asko ere bai. Zer sentitu zenuen Maite helmugan lehenengoa sartzen ikusi zenuenean?**

Iñigo: Lasterketan zehar oso urduri egon nintzen, inoiz baino gertuago ikusten nuelako garaipena eta banekielako zer garrantzia zeukan Maiterentzat Zegama-Aizkorri irabazteak, eta urduri nen-

goen era berean garaipen horren parte sentitzen nintzelako neu ere. Txabolak [losu Juaristik] du horren errua: Maiteren bueltakook geure ere sentiitza garaipena. Hankasartze txiki bat ere izan nuen Atabarretako anoa postuan, eta oso urduri jarri nintzen nire *ka-gada* bategatik galdu zezakeela pentsatuta, baina Aratzen galdetu nionean zer moduz zihoan eta 'ondo' erantzun zidanean, negarrari eman nion. Seguru neukan irabaziko zuela. Orain ere oilo ipurdia jartzen zait. Helmugakoa zer izan zen? Izugarria. Niretzat Maite da laguna, da taldekidea eta da hemendik kanpora lehiatzera animatu ninduen. Pentsa, beraz. Astebete lehenago irabazi nuen nik Espainiako Txapelketa bigarrenengoz, baina askoz gehiago poztu nintzen domekan.

♦ **Lasterketa bukatu berritan joan gintzaizkizun zuri, Iñigo, Maitei elkarrizketa egin nahiko geniokeela esanez. Momentuan ahaztu ere egin ginen zeu ere handia egina zeundela. Barkamena eskatu genizun, eta 'nireak ez dira ezer Maitek lortu duenaren aldean' erantzun zenigun.**

Iñigo: Ezin delako konparatu Espainiako txapelketa Zegama-Aizkorriko maratoiarekin. Lasterketak berak dauka prestigioa. Eta Munduko Kopatik kanpo balego ere, prestigio bera izango luke. Gaur egun Munduko Txapelketa irabazteak baino izen handia-

goa ematen du Zegama-Aizkorri irabazteak. Ikusi besterik ez dago Maite nola dabilen egunotan. Nik orain astebete lortu dudana guztiz eklipsatuta utzi du Maitek, eta *putada bat* da, baina guztiz normala da, ez direlako maila bereko lorpenak. Eta hori denok ikusten dugu.

Maite: Zoramena izaten ari da. Bai, egia da. Ezin diogu meritua kendu Iñigok Arredondon egin zuenari, baina nik ere garbi daukat Zegama-Aizkorri dela lasterketa guztien ama.

♦ **Badakigu garai zailak ere pasatu dituzula, Maite, lesioak eta abar. Nondik ateratzen duzu horiek gainditu eta berriz lehenengo mailan agertzeko indarra?**

Maite: Saiatzen naiz nire afizioa ahazten eta bizitzako beste kontu batzuetan zentratzen, denbora ahalik eta arinen pasatzeko. Eta jarraitzen dut entrenatzen, erlojuari gehiegi begiratu gabe. Oso konstantea naiz. Hori bai, garbi neukan aurten ez banintzen Zegama-Aizkorriko lasterketa lehiatzera irteten ez nuela urte osoan beste lasterketarik jokatu. Kirola egiteari ez nion utziko, baina zapatilak esegi eta hartuko nuen bizikleta edo.

Iñigo: Prestakuntzako detaile txikiena ere zaindu duzu azkeneko urteotan, eta min hartuta egon zarenetan ere, ni harrিতa gelditu naiz aurrera egiteko erakutsi duzun gaitasunarekin. Mirestekoa da.

Maite: Bai, eta hor losu aipatu behar dut. Gezurra gezurraren gainean ibiltzen zait halakoetan, umea banintz bezala, eta niri ezer esan gabe lotzen du dena: halako fisioterapeutarengana bisita, bestearenean kontsulta...

♦ **Oso ondo konpontzen zaretela bistan da. Oso ezberdinak zaretela ere bai. Iñigoren galdera da: 'Nola daramazu Txabo-**

“Banekien ez nuela hutsik egingo; ez nekiena zen besteek zer egingo zuten”

larekin [losu Juaristi] bizitza?

Maite: Jajaja. Jende askok oso bromazalea ikusten du, baina losu gai da bere pasioak alde batera lagatzeko niri laguntzeko. Laura Orguek esan izan dit ardurak oso ondo bereizita ditugula eta %100ean betetzen ditugula nork bere ardurak, bestearenetan sartu gabe. Medikuekin hitz egin, fisioterapeutekin egon... nire prestakuntza osoa bere esku lagatzen dut, eta konfiantza osoarekin gainera. Bere gauzetan oso pertsona arduratsua da losu.

Iñigo: Bai, oso-oso perfektionista.

♦ **Zegama-Aizkorriin Emanuela Briziok 2009an ezarri zuen marka ondu duzu eta pixkaterako izango da marka berria, itxura batean. Zeinek eta noiz ondu dezake zure errekorra?**

Maite: Zeinek ez dakit, baina atzoko baldintzak ematen badira, ondu dezake errekorra egitera datorren edozeinek. Errekorra ontzia ez zenez nire lehentasuna, ez nuen gehiago estutu beherantzkoan. Estutuz gero gehiago, arriskua daukazu ez irabazteko, eta nire lehentasuna irabaztea zen. Sartu izan naizelako helmugan askoz okerrago, denak emanda, Iñigorekin batera sartu nintzen hartan bezala (2014).

♦ **Iñigo, non dago neska honen langa?**


Iñigo: Ez dakit. Zer dago gehiago ba? Esne Bideko (*Via Lactea*) txapelketa?

♦ **Hau baldin bazen zure obsesioa, zer beste duzu orain begiz jota?**

Maite: Dorsal bat janzten dugun aldiro irabaztea da gure ilusioa, baina garbi dago Zegama-Aizkorri irabazteko izan dudan obsesio hori ez dudala sentitzen beste ezergatik. Baina oso egutegi polita daukat eta lehiazera irtengo naiz proba guztietan, jakina. The Courmayeur Champex Chamonix egin nahi dut irailean eta hori irabaztea ere sekulakoa izango litzateke edonorentzat, baina ni Zegama-Aizkorri irabaztearekin obsesionatuta nengoen. Ostiralean esaten nion losuri: 'Gertatzen dena gertatuta ere, ez da ezer gertatzen, ezta?'. Eta losuk 'nik zer esatea nahi duzu' esanez bezala begiratzen zidan. Neure buruari ari nintzaion losuri ari nintzaionean, ez irabaztea ez zegoelako nire buruan, eta jakitun nintzelako horren arriskuaz.

♦ **Arredondokoa, Zegamako kilometro bertikala, igandekoa... ospatu duzue?**

Iñigo: Ospakizun berezirik ez dut egin nik neuk, baina Arredondon biok podiumeko goiko postura igo eta elkarri eman genion besarkada eta Zegamako helmugan bizi izan genuena, losuri helduta egin nuen negar guztia, eta losu eta biok lehenengo eta Maite eta biok gero elkarri eman genion besarkada bezalakorik ez dago.



Maite Maiora losu Juaristiri eskua ematen, lasterketako une batean.

Arg.: Jordi Saragossa - fotògraf.

Maite: Arredondokoa, elkarrekin podiumera igozteak, izugarria izan zen, eta Zegaman, elizatik gorako tarte hori, itzela. Urtero egoten zarete guztiok leku berean eta nik badakit, eta hori sentitzea izugarria da.

♦ **Maite, itzalean laga duzu Iñigok kilometro bertikalen txapelketa irabazi izana. Zer galdetu edo esango zenioke?**

Maite: Animateko nuke Munduko Kopa lehiazera joatea, sinisten dudalako paper ona egin dezakeela. Ostiralean espero nuen podiumean ikustea eta pena izan zen. Horregatik poztuko nintzateke joango balitz mundukora.

♦ **Arredondon, bai. Espainiako Txapelketa irabazi zenuen. Zer sentitu zenuen, Iñigo?**

Iñigo: Azkeneko urteetan emaitza onak lortu arren ez naiz sasoi onenean sentitu, baina Arredondon oso gustura sentitu nintzen. Atzetik harrapatu nuen Maite, eta bere parera iritsi nintzenean esan ere egin nion: "Gaur bai, gaur biontzako da hau".

Maite: nik ikusi nuenean hau zezena moduan zetorrela... buff! izugarria izan zen. Ezta, Iñigo?

♦ **Ematen diozue aholkurik elkarri. Zer esango zeniguke Iñigotaz, Maite?**

Maite: Iñigo eta ni oso antzekoak garela, baina honi falta zaiola pixkat metodikoagoa izatea. Buruak huts egiten dio. Fisikoa biok dugu, baina burua gehiago entrenatzea falta zaio.

Iñigo: Anbizioa badut nik ere, baina helburu bat lortzeko jakin egin behar da gauza batzuk detaile handiagoz zaintzen eta beste batzuk alboratu uzten, eta nik Maite prestuago ikusten dut horiek denak egiteko ni baino. Era berean, presioa ere berak hobeto kudeatzen du nik baino.

Maite: Bai. Aukera izanda ere, Iñigok ziurrenik sekula ez luke irabaziko Zegama-Aizkorri ez duelako aguantatzen pentsatzea irabazi dezakeela. Jakingo balu berak huts egin ezean irabazteko aukera izango lukeela, seguru huts egingo lukeela. Eta pena bat da, oso gai delako gauza askotarako.



Gaztelekuko udaldia prest!

Udaldirako ekintzak proposatzeko bilera egin zuten nerabeek Gaztelekuan maiatzaren 19an, eta ideia guztien artean, gustukuenak aukeratzeko astebeteko epea izan dute. Bozketak egin dituzte, eta horri esker, prest dago Gaztelekuren eskaintza. Gaztelekuko udaldia ekainaren 19an hasiko da, eta uztailaren 14ra arte iraungo du. Tarte honetan, astebukeratan (larunbat eta igande) itxita egongo da, eta astean zeharrekoa izango da eskaintza. Izena emateko azken eguna ekainaren 16a izango da eta Gaztelekuan bertan eman beharko da izena. Ekintza bakoitzak bere prezioa dauka, baina diru-laguntzak ere egongo dira: DSBL (AGI), DBE (RGI), GLL (AES) jasotzen duten familiek %70eko laguntza jasoko dute, eta familia ugariak eta bigarren seme-alabagatik %30ekoa.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943 743 228 / 628 170 330 telefonoetara deitu daiteke, edo Instagramen *elgoibarkogaztelekua* jarraitu.

Jarraian dituzue gazteek eurek eurentzako aukeratu dituzten ekintzak:

1. Arcachon ur parkera irteera

Ekainaren 29an joango dira egunpasa. Irteera honek 20 euroko prezioa du.

2. Irrisariland parkera irteera

Uztailaren 5ean izango da. Irteera honek 15 euroko prezioa du.

3. Askizu aterpetxean egonaldia

Lau eguneko egonaldia egingo dute Askizun, uztailaren 11tik 14ra. DBH1-2 ikasleentzako eskaintza da hau. Egonaldiak 85 euroko prezioa dauka.

4. Tarragonan egonaldia

Bost eguneko egonaldia egingo dute Tarragonan, uztailaren 3tik 7ra.. DBH3-4ko ikasleentzako prestatu dute egonaldi hau. 120 euroko prezioa dauka.

ATXUTXIAMAİKAREN ETA UDAL LUDOTEKAREN UDAKO ESKAINTZA

Haurrentzako udako aisia eskaintzan 409 umek eman dute izena, eta 55 hezitzaileekin jardungo dute lanean. Herriko auzoetara egingo dituzte irteerak, kostaldera ere joango dira eta Gamarrako igerilekuetara ere bai. Egonaldiak ere egingo dituzte, besteak beste, Zuatzan eta Askizun.

Udaldiko eskaintzaz gain, Elgoibarko Izarrak Txoko Osagarriak ere eskainiko ditu, uztailan eta irailean. Uztailaren 24tik 28ra eta irailaren 1etik 6ra egingo dira. Bietako batean izena eman nahi duenak 48 euro ordaindu beharko ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideek 43 euro), eta bietan izena emanez gero, 90 euro ordaindu beharko dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 80 euro). 9:00etatik 13:00etara arteko zerbitzua eskainiko dute. Txoko Osagarriak aurrera eraman ahal izateko gutxieneko haur kopurua 15koa da. Interesatuek ekainaren 9ra arte dute izena emateko epea. Ordainketa egiteko, bi kontu korrante jarri dituzte aukeran: ES35 3035 0007 23 0070065514 edo ES55 2095 5036 58 1070736292. Kontzeptuan haurren izen-abizena jarri behar da: Informazio gehiagorako: 943 741 626 (Mikel).

Txikibarren

Zein da Donald Trump?



Gari Narbaiza
(Elgoibar Ikastola, 8 urte)

Estatu Batuetako presidentea da. Ilea txuria dauka, eta beti eramaten du korbata urdina edo gorria, eta trajea. Pixkat barre-gura ematen du. Botere handia dauka, alkateak baino gehiago.

Maialen Azkoaga
(Elgoibar Ikastola, 8 urte)

Estatu Batuetako presidentea. Ille horia dauka, eta aurpegia ere hori antzerakoa. Ez zait gustatzen. Presidenteak agindu egin behar du, baina honek ez du ondo agintzen. Beste batek hobeto egingo luke.



Maialen Pizarro
(Elgoibar Ikastola, 8 urte)

Ez dakit zein den, ez ditut Donald Trumpen kontuak ikusten. Estatu Batuetako presidentea? Ez dut inoiz ezer entzun berri buruz. Nire ustez presidenteak egin behar du lan jende guztia ondo konpontzeko eta arazoak daudenean konpondu egin beharko lituzke.



Julen Lahoz
(Elgoibar Ikastola, 8 urte)

Ameriketako presidentea da. Mutila da, handia, ile-horia... Negoziok egiten ditu, eta diru asko dauka. Diru hori behar-tsuerei eman beharko lioke eta munduari lagundu. Boterea dauka eta agindu egiten du, baina ez oso ondo.



Maidar Retolaza
(Elgoibar Ikastola, 8 urte)

Ez dut ezagutzen. Estatu Batuetako presidentea? Nik ez ditut presidenteak ezagutzen, baina uste dut diru asko edukitzen dutela. Nik hainbeste diru edukiko banu, lagunekin banatuko nuke.



Oxel Urrusolo
(Elgoibar Ikastola, 7 urte)

Estatu Batuetako presidentea. Ingelesez hitz egiten du, ile horia dauka eta oso zaharra da. Agindu egiten du, eta gaizki iruditzen zaiona ez du uzten egiten. Niri ez zait gustatzen. Ez die uzten beste herrialdeetakoiei Estatu Batuetan sartzen. Nik lagako nieke.



Hellgoibarko Metal Gaua egingo dute gaur, Maalako parkean



Hilabete batzuetako isilunearen ostean, bueltan dator berriz ere Siñüose, eta ez nolnahi gainera. Gaur gauerako Hellgoibarko Metal Gaua antolatu dute. Jaialdi hau antolatzen duten bosgarren urtea da, eta aurtengoan bi talde gonbidatu dituzte: Bilboko Quaoar eta Madrilgo Adrift taldeak.

Quaoar taldea bost lagunek osatzen dute, eta etiketa asko jarri dizkieten arren, euren garbi dute: rock estiloko musika da euren mugarik gabeko rock-a. Adrift talde madrildarrak, bestalde, sludge edo doom estiloko erritmoak jorratzen dituzte. Kontzertua 23:00etan hasiko da.

Bukatu dira Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketak

Aurreku Txapelketako finala jokatu zuten domekan Erreterian, eta bertan, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako bost ikaslek hartu zuten parte: Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Aimar Almortza, Markel Goenaga eta Gaizka Uranga. Musika eskolako arduradunek esandakoaren arabera, "ondo" aritu ziren dantzari elgoibartarrak. Soinu Zahar txapelketa orain dela bi aste amaitu zen. Elgoibarko dantzari gazteek oporrak hartu dituzte, datorren ikastertera arte, baina orain 15 urtetik gorakoen txanda da. Hauek udan lan egin beharo dute, irailean Zarauzko txapelketan eta urrian Euskadiko txapelketan lehiatzeko. Elgoibarko bi ordezkari izango ditugu: Gaizka Uranga eta Nerea Sasiain.



Giro onean joan zen Atabal elkarteak antolatutako Sagardo Eguna

Trinitateetako danborradaren elkarteak Sagardo Eguna antolatu zuen joan zen barixakurako, eta antolatzaileak pozik agertu dira herritarrek emandako erantzunarekin. Udal agintariak inauguratu zuten jaia, eta goizaldera arte luzatu zen festa. 350 sagardo botila saldu zituzten eta ia pintxo guztiak agortu ziren. Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako trikitilariak alaitu zuten festa, eta arduradunak esandakoaren arabera, oso ondo irten zen guztia.




Oin Alai egitasmoak zazpi urte bete dituela ospatu zuten

Atxutxiamaiak txarangako kideen musikak lagunduta egin zuten joan zen barixakuan umeez eskolarako bidea, Oin Alai egitasmoak zazpi urte bete dituela ospatzeko. Elgoibarko Udalak, Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak ikasleak eskolara oinez joatera animatzeko asmoz sortu zuten Oin Alai egitasmoa. Arduradunak jakinarazi dute datorren ikasterterako izena emateko aukera dagoela Udalean eta ikastetxeetan.



Kaleko Margo Lehiaketa egingo dute bihar erdiguneko kaleetan



Egur arte tailerrak Kaleko Margo Lehiaketa antolatu du biharko, Udalaren laguntzarekin. Adinez nagusi den edonork hartu dezake parte, eta partaide bakoitzak artelan bakarra aurkeztu ahal izango du. Artelan guztiak aire librean egin beharko dira, gune mugatu batean. Gaia, teknika eta formatua libreak izango dira, baina antolakuntzak zehaztutako mugen barruan kokatuta egon beharko du artelanak. Partaide bakoitzak ekarri beharko du artelana egiteko beharrezkoa duen materiala, eta euskarriak Kultur Etxeko sotora eraman beharko dira 9:00etatik 10:00etara bitartean, zigilua jarzkeo. Lanak, 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dira. Irabazleak 800 euroko saria jasoko du; bigarrenak 500 eurokoa eta hirugarrenak, 300 eurokoa. Aurten herriko lan onenak 200 euroko sari berezia jasoko du.

Pirritx eta Porrotx gaur, Mendaron

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Tipi-ttapa*, korrika ikuskizuna eskainiko dute gaur, Mendaron. Ikastolako patioan izango da saioa, 18:30etik aurrera. Sarrerak hilaen 19an jarri zituzten salgai, 7 euroan, baina nahi duenak gaur ere erosteko aukera izango du, saioa hasi aurretik. Kapotadun aukietan dauden umeez ez dute sarrerarik ordainduko. Lehenengo Korrika 1980an ospatu zen, beraz, aurten 20 urte bete ditu. Urteurren hori dela-eta, euskara oinarri hartuta prestatu dute emanaldia. Korrika herri batera helduko da, bertan amaituko da ibilbidea gainera. Pailazoez publikoak ibilbidearen bukaerako ospakizunetan parte hartzera gonbidatuko dute. Kolorez, abenturaz eta sorpresaz betetako jaia izango da.

Kontziliazioaren egoera ezagutzeko galdetegia

Elgoibarko kontziliazio egoeraren diagnosis egingo du Elgoibarko Udalak, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren barruan. Horretarako galdetegi bat prestatu du. Etxetik kanpo lan egiten duten pertsonen zuzenduta dago inkesta, eta besteak beste, ondorengo informazioa biltzen saiatuko dira: lan ordutegien malgutasuna, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko zailtasuna, udalerriko zerbitzuak (kiroldegia, liburutegia, eta abar) herritarren beharretara egokituta dauden, kontziliazio zerbitzu nahiko dagoen... Ane Beitia Elgoibarko alkateak herritarren laguntza eskatu du, elgoibartar guztiak informazio iturri garrantzitsua direlako ikerketa honetarako. www.elgoibar.eus webgunean aurkituko duzue inkesta.



Hasier Etxeberriaren errautsekin haritza landatu dute Gaztelun

Martxoaren 29an hil zen Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria, eta ordutik agur eta omenaldi bat baino gehiago egin dizkiote. Azkena domekan jaso zuen Gaztelun, bera bizi zen herrian. Larte mendian haritz bat landatu zuten Hasier Etxeberriaren errautsekin. Etxeberriaren gertuko ehun lagun inguru elkartu ziren mendian, Gaztelukoak eta Elgoibarkoak gehienak. Felix Etxeberria Hasierren aitak eta Lula Hasierren alargunak landatu zuten zuhaitza.

Erromeria gidatua ekainaren 9an, Maalan

Erromeria gidatua antolatu dute Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak ekainaren 9rako, Elgoibarko Udalaren Kultura Sailaren babesarekin. Errebal taldeak gidatuko du erromeria. Jokin Otamendi Errebal taldeko dantza-maisua eta gidaria plazako jende artean arituko da, zuzenean dantzak irakasten. Uanean bertan ikasteko modukoak izango dira, oro har, dantzak, bikoteka eta taldeko dantzazkoak. Antolatzaileek argi utzi dute, baina, ez dela ikastaro bat izango, baizik eta festarako erromeria. Dantzan ondo pasatzea izango da helburu nagusia. Euskal Herriko eta Europako dantzak tartekatuko dituzte repertorioan. 20:30an izango da, Maalan.

Haundik miraria behar du mailari eusteko



Haundik 2-0 galdu zuen Azkoitiko Anaitasunaren aurka Mintxetan jokatu zuten ligako azken partidaren, eta azken laugarren postuan amaitu du liga txapelketa. Miraria behar du mailari eusteko. Azken hirurek zuzenean galdu dute maila, eta Haundik Hirugarren Mailako igoera kanporaketetan eman daitezkeen emaitzetan du itxaropena jarrita. Izan ere, Hirugarren Mailako lehen sailkatuek igoera fasea jokatu dute datorren asteetan, hurrengo denboraldian Bigarren B Mailan jokatu ahal izateko. Bi euskal taldek igoera lortuko balute, Haundi ez litzateke jaitsiko. Aukera hori, baina, oso gutxitan gertatu da. Anaitasunak, bestalde, Hirugarren Mailara igotzea lortu zuen Elgoibarren irabazita, eta Mintxetan hasi zituzten gero Azkoitian jarraipena izan zuten ospakizunak. (argazkiak eta bideoa barren.eus)

Alcorta Gipuzkoako Kopako txapeldun, Lauko finalean



Alcorta Forging Group Sanloko senior gizonezkoen talde nagusiak irabazi du Gipuzkoako Kopa. Egia taldearen aurka jokatu zuten finala Donostian, eta 28-30 irabazi zuten elgoibartarrek. Laukok, senior emakumezkoen Sanloko taldeak, ere lortu du Gipuzkoako Kopako finalera iristea. Bera-Bera taldearen aurka jokatu du finala Donostian, zapatuan (ekainak 3), 17:30ean. Sanlok jokalariren autobusean joateko aukera emango die zaleei. Autobusa Txarridunako biribilguneetik irtengo da 15:30ean, eta autobusa bete arte lekua egingo diete zaleei.

Euskadiko Eskubaloi Federazioak denboraldiko jokalaria onenak aukeratzeko prozesua hasi zuen. Izendatuen berri eman zuen lehenik, eta izendatuei Internetez botoa emateko aukera egon da gero. Jubenil mailan, Sanloko bi jokalaria elgoibartarrek jaso dituzte boto gehien: June Loidik, emakumezkoetan, eta Asier Urainek, gizonezkoetan. Botoen %34a jaso ditu Loidik, eta %33a, Urainek.

Hugo Sierra arkularia Euskadiko txapeldun, basoko 3D modalitatean

Zarta Arkulari taldeko Hugo Sierra elgoibartar irabazi du Euskadiko Txapelketa, basoko 3D modalitatean. Legution jokatu zen txapelketa eta 24 dianez osatzen zen zirkuitua. Dianek animalien formak zituzten. Untxi edo hegazti txikietatik hasi eta lehoi edo hartzetaraino izan daitezke animalien hiru dimentsiotako irudiak. Era berean, Zartako beste kide batek, Jabier Varonak, Basoko 3D Euskal Ligako bigarren postua eskuratu du sailkapen nagusian.



Iban Gonzalezek bigarren egin zuen Zumarragan

Master mailako Zumarraga Hiria txirridulari lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu zuten maiatzaren 28an, eta Eibartrans-Gobike taldeko Iban Gonzalez elgoibartarrek bigarren postuan iritsi zen helmugara. Master 30 mailako irabazlea izan zen gainera. Ramon Garcia elgoibartarrek lortu zuen 12. postua ere nabarmendu behar da, lepauztaia hautsi eta gero, lau hilabetez geldu egon ostean itzuli baitzen lehiara.



Nerea Sasiain eta Martin Hernandez atletak, Euskadiko txapelkun

Jubenil eta junior mailako Aire Libreko Euskadiko Atletismo Txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Durangon. Mintxeta Atletismo Taldeko kideak maila onean aritu ziren, eta Nerea Sasiainek eta Martin Hernandezek urrezko domina bana lortu zuten, 400 metroko proban lehenak eta 800 metroko lasterketan bigarrenak. Nerea Sasiainek 57 segundu eta 7 ehuneko behar izan zituen Landako pistari itzulia emateko. Martin Hernandezek, berriz, minutu bat, 57 segundu eta 37 ehuneko denboran osatu zituen bi itzuliak, 800 metroko proban. Bi atleta hauek pista estaliko Gipuzkoako Txapelketa ere irabazi zuten otsailean, 400 metro-tako probetan.



Kirol Eguna egingo dute Mendaron, bihar



Arno guraso elkarteak Kirol Eguna antolatu du zapaturako Mendaron. Azaldu dutenez, lehiatzeko ez diren jolasak ez lehiakor eta talde lana bultzatzen dutenak prestatu dituzte umeentzat. Mendaro ikastolako haur guztiei zuzenduta dago jardunaldia, hau da, HH2tik hasi eta LH6arte. 10:30ean hasiko da Kirol Eguna eta 13:30era bitartean hainbat kirol eta jolas egingo dituzte ikastolako patioan.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Anaitasuna 2 (Oho. erreg.)

ESKUBALOA

Egia 28 – Alcorta F.G. 30 (Gipuzkoako Kopa)

Lauko 21 – Aiala Zarautz 19 (Gipuzkoako Kopa)

Aiala Zarautz 37 – Astigarraga GYS 22 (Gip. Ko.)

Viento Sur jokalaria bila

2017-2018 denboraldirako jokalaria behar ditu Viento Sur saskibaloitaldeak, Gipuzkoako Lehen mailara igotzea lortu eta gero. Taldera batu nahi duten lagunek ekainaren 8an Olaizaga kiroldegira agertu beharko dute, 19:15etik 20:15era egingo duten entrenamendu saiora. Edozein zalantza argitzeko honako telefono zenbakira deitzeko eskatu dute: 674 313 794.

Hiru txirlo txapelketako azken jardunaldia

Gipuzkoako 48. hiru txirlo bola joko txapelketako azken tiraldia, hamargarrena, jokatu dute bihar, Eibarren, Asola Berriko bolatokian, 12:00etan. Azken jardunaldiaz gainera, Bolari Eguna ospatuko dute eta omenaldia eskainiko diete Jesus Mari Diezi eta Bittor Maria Rodriguezi.

Lehiari dagokionez, Jose Muñoz azkoi-tiarra dago sailkapeneko lehen postuan, 40 txirlo botata. San Migel taldeko Xabier Loiola elgoibartarra dago bigarren postuan, 37 txirlorekin eta Sergio Rodriguez dago hirugarren.

180 umek parte hartu zuten Elgoibarko Igeriketa Egunean

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna egin zuten Olaizaga kiroldegian maiatzaren 27an. Guztira 180 umek hartu zuten parte, 6 eta 14 urte artekoak. Txikienek hainbat jolasetan parte hartu zuten, eta gozatzeko aukera izan zuten, eta koskortuak igeriketa proba desberdinetan lehiatu ziren.



LANA.....
Eskaerak

Orduka lan egiteko prest nago. Etxeak, elkarrekin edo portalak garbituko nituzke. ☎ 653 160 233

Adinekoak zaindu edota garbiketa lanak editeko prest nago. Interna edo orduka. ☎ 653 156 403

Nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 737 903

Neska gazte euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. ☎ 617 248 087

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 882 532

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Jardunaldi osoz edo orduka. ☎ 632 636 069

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka eta baita asteburuetan ere. ☎ 632 953 013

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Interna zein orduka. ☎ 666 197 835 (Rosa Alvarez)

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 717 557

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 436 462

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 612 266 877

Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta titulazioa ditut. Garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko ere prest nago. ☎ 654 304 337

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. ☎ 664 357 381

Arratsaldez lan egiteko prest nago, 16:00etatik 18:00etara. Edozein lan egingo nuke. ☎ 633 946 701

Neska arduratsua eta esperientziaduna adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ 631 343 232

38 urteko emakumea naiz, eta edozein lan egiteko prest nago: adinekoak edo umeak zaindu, garbiketak... ☎ 649 442 014

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. Gidabaimena eta autoa ere bai. ☎ 662 430 854

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. ☎ 631 185 896

Eskaintzak

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Esperientziadun sukaldaria behar dugu. ☎ 943 199 061 (Itziarke hostala)

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 627 230 784

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 490 595

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 667 397 100

KINTOAK.....

1957koen bazkaria uztailearen 1ean, Sigman. 13:00etan elkartuko dira Bolarokian, luntxa 14:00etan, eta gero, bazkaria. 55€ko sartu, ekainaren 28rako: 2101 0036 60 0128193893 ☎ 619 127 474 (M^o Jesus) ☎ 662 173 220 (Pili)

1952koen bazkaria ekainaren 17an. 12:30ean harrera, argazkia eta luntxa Txaridunan. 14:30ean bazkaria. 50 euro sartu, ekainaren 9rako: ES45 3035 0007 2100 71133665 (Laboral Kutxa).

BESTELAKOAK.....

Eteko katu bat jaso du KatuEder elkarrekin eta jabe bila dabil. ☎ 605 772 880

Zubi-Ondo elkarteko bazkide kuota salgai. Merke. ☎ 628 253 046

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko azken batzarrean baldintzapeko akordio batzuz hartu ditugu. Adibidez, garbiketa enpresa bat kontratatzea erabaki dugu, beti ere zerbitzu hori emateagatik egin dugun aurrekontuaren erdia kobratzen badu. Bestela, garbiketa bizilagunen artean egingo dugu. Jakin nahiko nuke bileran gertatutakoa bakarrik jaso behar den aktan, eta mota honetako akordio baldintzatuak aktan jaso behar diren ala ez.

Legeak dio Jabekideen Batzarrean hartzen diren akordioak Jabetza Erregistroan egiaztatutako akta liburu batean jaso behar direla. Era berean, aktan jaso behar den hartutako akordioak, eta beharrezkoa balitz, akordio horien alde eta kontra bozkatu duten etxe-jabeen izenak eta baita ere, bakoitzak ordezkatzen duen partaidetza kuota. Baina etxe-jabeen izenak eta kuota partaidetzak jasoko dira bakarrik informazio hori hartutako erabakian adierazgarria bada. Legeak dio aktan hartutako akordioak jaso behar direla, beraz, akordio horien laburpen bat nahikoa litzateke eskakizun hori beteitzeko.

AHOLKUA: Aktan batzarrean gertatu dena bakarrik jaso behar da, beraz, ez da beharrezkoa zehaztu den baldintza jasotzea. Bakarrik jaso behar da etorkizunean emango den baldintza, baina ez ondorengo emaitza. Baina nahi izanez gero, batzarraren osteko gertaerari erreferentzia egiten dion nota bat jaso daiteke. Modu horretan ondorengo interpretazio arazoak sahiestuko dira.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Bixar egun haundixa! 6 urte! Zoriona, **Martxel!** Paaaaaa.



Zorionak, **Maia-len**, 8 urte handi egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Mikelen partez.




Zorionak, **Olaiz**, asteartean 9 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu potolo bat.




Zorionak, **Lan-der**, asteazkenean 3 urte bete zenituelako. Muxu pila bat etxekoen, eta bereziki, lkerren partez.



Zorionak, **Maddi eta Haizea**, ekainaren 4an 7 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana, familiakoen partez.



Zorionak, **bikote!** Heldu da egun haundixa! Ziur ondo pasatuko dogula zuen ezkontzan. Elgoibarko kuadrilla.



Zorionak, **Jon**, zure zazpigarren urtebetetzean! Patxo handi bat etxeko guztion partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com



DAILIES® TOTAL 1®

Hain dira erosoak,
ezer ez daramazula
irudiko zaizula.

Probatu itzazu doan!

Alcon A Novartis
Division
81704628/04, CPSP16180CAT

2 BARIXAKUA

18:30 Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia, Mendaroko Ikastolan.

18:30 Egur arte tailerreko ikasleen lanen erakusketa. Oleoak, esmalteak eta grabatuak. Ekainaren 10era arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Asteleheneretik zapatura, 18:30etik 20:30era.

19:00 Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia. Udal Txistulari Taldeak eta Haritz dantzari taldeak ere parte hartuko dute. Kalegoen plazan. Euria bada, Le-kuederreko karpan.

23:00 Kontzertua: Hellgoibarko metal gaua, Adrift eta Quaoar taldeekin. Siñüosek antolatuta, Maalako parkean.

3 ZAPATUA

10:30 Ikastolaren Eguna. Tailerrak, jolasak, erakusketak, jokoak, bazkaria... Egun osoko jaia egingo dute Elgoibar Ikastolan.

9:00 Kaleko margo lehiaketa, Elgoibarko erdiguneko kaleetan. Egur arte tailerrak antolatuta. 14:30ean sari-banaketa, Kultur Etxeko sotoan.

4 DOMEKA

10:00 Irteera geologikoa. 'Itsas azpiko bulkanismoa Elgoibarren'. Inma Mugerza geologoarekin. Elgoibarko udale-

txeko arkupeetan batuko dira eta hiru orduko ibilaldia egingo dute. Luzera: 5 km. Desnibela: 10 m. Prezioa: 8 €. Lzena emateko: infohydrolur@gmail.com

5 ASTELEHENA

18:30 Kaleko margo lehiaketako lanen erakusketa. Ekainaren 10era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko sotoan, 18:30etik 20:30era.

8 EGUENA

18:00 Hitzaldia: 'Dibortzio osasungarria'. Agipas elkarteko abokatu-mediatzailea eta psikologoak eskainiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kalamua guraso elkartea, Arreiturreko guraso elkartea, Ikastolako Gurako Kontseilua eta Ongizate Sailak antolatuta.

9 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

19:00 Kontzertua. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako talde finkoak. Herriko Antzokian.

20:30 Erromeria gidatua, Errebal taldearekin. Maalan.

21:30 Bideo foruma: Haizeak antolatuta, 'Bagdad café' filma landuko dute Loredi Salegik dinamizatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

2 Barixakua FERNANDEZ*

3 Zapatua YUDEGO

4 Domeka YUDEGO

5 Astelehena ORUESAGASTI

6 Martitzena BARRENETXEA

7 Eguaztena IBAÑEZ*

8 Eguena GARITAONANDIA

9 Barixakua ETXEBERRIA

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora

denean, asteburuetan ezik:

BARRENETXEA (Elgoibar)

Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Mila Roteta Zulaika

2017ko maiatzaren 30ean hil zen, 68 urte zituela.

Zure ondoan pasatako une gozoak ez ditugu inoiz ahaztuko

Larrañaga - Eizagirre
Eizagirre - Azpiazu
sendiak





1967

Lorea San Martinek ekarri du erretratu zahar hau BARRENera. 1967ko apirilean aterata dago, eta Urruzuno-Etxetxo baserriko familia ageri da erretratuan. Denak dotore jantzita daude, eta seguruenik familiako ospakizunen bat-edo izango zuten egun horretan. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: **Zutik:** Jose Mari, Isidro, Jose eta Migel San Martin. **Behean:** Martin, Francisca Maguregi eta Patxi.



Mila Roteta Zulaika

2017ko maiatzaren 30ean hil zen, 68 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



"Ground Control to Major Tom
Ground Control to Major Tom
Take your protein pills and put your helmet on
Ground Control to Major Tom (Ten, Nine, Eight, Seven, Six)
Commencing countdown, engines on (Five, Four, Three)
Check ignition and may God's love be with you (Two, One, Liftoff)"

(David Bowie – Space Oddity)

(2100. urte inguruan)

- Zer? Ezin lorik egin, ala?
- Ez
- Nik ere ez.
- Amesgaizto bat izan dut. Eguzki-ekaitz erraldoi baten ondorioz, gure espazio-ontziko ordenagailuak matxura larria izan du, eta gure kapsulek su hartu dute, eta orduan... esnatu egin naiz.
- Tira, normala da horrelako amesgaiztoak izatea bidaiaren bezperan, ezta? Lasai, ez da ezer gertatuko. Dena ondo aterako da, ikusiko duzu.
- Bai. Hori pentsatu nahi dut nik ere, baina... beldurra uxatu ezin nabil.
- Egon lasai. Ez dago zertan kezkatutik.

- Gainera, lehenago gurasoak bisitatzean, oso triste sumatu nituen. Ez dakit nola eramango duten hau.
- Badakizu baina ia une oro hitz egin ahalko duzula eurekin, eta, gainera, bost urte barru edo agian lehenago bueltan izango gara!
- Arrazoi duzu. Ilusio handia dut bidaiari honetan.
- Gainera, aitzindariak izango gara gizateriaren historian. Zatoz leihora eta begiratu zerura. Ikusten lpar-izarra? Bai ederra, ezta? Hari jarraituz itsaso ezezagunetan nabigatu zuten marinelek antzina. Orain gure txanda da. Imajinatzen albistea? Iritsi dira lehenengo gizakiak Martera!
- Ai, nire esploratzaile ausarta! Besarka nazazu goxogoxo.
- Hatoz hona, laztana. Ondo lo egin.

Aurrematrikula ekainak 5etik 16ra

Fp
LANBIDE
ESKOLA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTUA: LANBIDE, ENPLAZAMENDUA
ESKOLA: LANBIDE

DEPARTAMENTO DE EMPLEO, FORMACIÓN
POLÍTICA LABORAL Y JUVENTUD



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldean...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldean...

- Automozioa
- Gizarteratzea

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax: 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso indutrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Indutrigunea, 9
20850 Mendaro

Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albitxuri indutrigunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 behea - Elgoibar

943 744 019
605 713 168

- * Proiektuak
- * Erreformak
- * Gremioen koordinazioa
- * Obren zerbitzu integrala

ELEKTRIZATEA



elektrizitatea


Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
DOMOTIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

943 741 238
680 756 248

San Frantzisko, 56 - Elgoibar
roteta@rotetaelek.eus

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223

lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90